

Estortsioa egiteagatik atxilotua Getxon

BILBO

Getxoko (Bizkaia) enpresari bati estortsioaren bidez bost milioi pezeta (228.000 libera) kendu zizkion lagun bat atxilotu eta kartzelaratu du Ertzaintzak. Getxoko Jose Vicente O. S. 28 urtekoa da joan den ostiralean atxilotu eta atzo Basauriko kartzelara sartu zutena.

Ertzaintzak emandako informazioaren arabera, zorrak ito beharrean zegoen, agi denez, gaztea, eta besterik gabe, edozein enpresari estortzionatzea erabaki zuen. Getxoko Gida Komertziala hartu zuen gazteak, Ertzaintzak jakinarazi duenez, eta telefonoz zein postaz harremanetan jarri eta enpresariari bost milioi pezeta eskatu zizkion, ordaintzen ez bazion berak eta bere familiak ondorioak jasan beharko zituztela mehatxu eginez. Joan den asteko ostegunean beste gutun bat bidali zion dirua non eta nola utzi behar zuen esateko.

Enpresariak utzitako dirua ostiral goizeko ordubietan jaso zuen gazteak, Ertzaintzak informatu duenez, eta ordurako zainketa operazio berezia jarria zuten, han bertan atxilotu zuten.

SOS Balkanes Jugoslavia ohira laguntza bidaltzen ari da etengabe

DONOSTIA

SOS Balkanes erakundeak bideratuta etengabe ari dira abiatzen arropaz eta jakiz betetako kamioiak Jugoslavia ohira. Iragan larunbatean goizeko hamarretan atera zen azkenekoa, Arrasateko (Gipuzkoa) biztanleek emandako eta Baztango (Nafarroa) sei parrokiatan jasotako 24 tona arroparekin beteta. Azken kamioi trailer honek Kroaziarako bidea hartu du, Zagreb hiriburura joango da zehazki. Bertan Merhamet elkarteak hartuko du bidalitako laguntzaren ardura eta ondoren, Bosnian banatuko dute jasotako arropa.

Aipatzekoa da SOS Balkanes elkarteak berriro eskatu duela euskal herritarren laguntza, «batez ere, itxura guztien arabera gatazkak luze iraungo duela kontuan hartuta».

Emakume elkarteak bilduko dituen batzorde berria eratu du Emakundek

Atzo bildu zen lehendabiziko aldiz proposamenak jasotzeko helburuz

EAeko emakume taldeen partaidetza bilduko duen aholku batzorde berria eratu du Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak. Asmo zehatz batekin sortu da aipatu batzordea: emakume taldeen eta Emakunderen artean komunikazio bide egonkorrak ezartzeko helburuarekin alegia. Era berean, emakumeentzako elkartegintzari buruzko gidaliburua argitaratu berri du Emakumearen Euskal Erakundeak.

DONOSTIA

Atzo bildu zen Gasteizen lehendabiziko aldiz EAEko emakume talde desberdinetako eta Emakundeko ordezkariak bilduko dituen aholku batzorde berria. Hamazazpi emakume bildu ziren guztira, EAEko emakumeen egoera hobetzeko proposamenak egitea eta jasotzea helburu zutela. Bildutakoetatik bost Emakundeko ordezkariak ziren eta gainontzeko 12ak emakume elkarrekin kideak.

Batzorde osatu berri honen helburu nagusia, Emakundeko kideak eta emakume taldeetakoak elkarrekin harreman iraunkorretan jartzea da, Emakumearen Euskal Erakundeko iturriek zehaztu dutenez. Batzordea osatu aurretik, Emakundeko kideak EAEko 200 emakume taldetako ordezkariekin elkarriketatu ziren herrialdeka. Lehendabiziko harreman horren ondoren jarri



Txaro Arteaga, Emakunderen zuzendaria.

BAYO

zen martxan batzordea, bi aldeek adostasuna jasota.

Lehenengo bileraren ostean, lau arlotan banatuta gelditu da batzordea: arlo sozio-kulturala, formazioari dagokiona, osasun asistentziaz arduratuko dena eta gogoeta ideologiko-feminismoa / lesbianismoa arloa. Batipat, emakume taldeei Emakunderen asmoen berri eman eta alderantziz, emakume taldeetan jasotako proposamenak Emakundera bideratzea izango da aholku batzordearen eragina.

Txaro Arteaga Emakundeko zuzendariak adierazpen onak egin zituen atzoko bilkuraren ondoren. Bere esanetan, emakumeak gero eta gehiago ari dira mugitzen eta ekintza desberdinak aurrera eramaten. «Horren adibide dira EAEn dauden emakume taldeak, berrehundik go-

rakoa baita kopurua», erantsi zuen. Berrehun talde horietatik, benetan funtzionatzen dutenak gutxi gora-behera 150 direla zehaztu zuen Emakundeko zuzendari nagusiak.

EMAKUMEEN ELKARTEGINTZARAKO GIDALIBURUA

Aurrekoarekin lotuta, aipatzekoa da emakumeen elkarteak eratu edo osatutakoetan sartzeko argibideak ematen dizkien gidaliburua argitaratu berri duela Emakundek. «Emakumeak gure herriko bizitza publikoan parte hartuko badu, elkarre mugimenduan sartzeko bideak indartu eta erraztu beharra dago», azaldu zuten Emakumearen Euskal Erakundeko iturriek gidaliburuaren argitalpenaren albistea eman zutenean, eta horixe izango da hain zuzen liburuskak honen helburua.

Guztira hemeretzi intsumiso epaituko dituzte aste honetan Iruñeko auzitegian

IRUÑEA

Hemeretzi intsumiso epaituko dituzte aste honetan Iruñean, gaur, bihar eta etzi egitekoak diren epaiketetan. Datorren astean ere izanen da epaiketa gehiago, uda aurreko azkenekoak, uztaillean eta abuztuan ez baita epaiketarik izanen. Irailean hasiko dira berriro intsumisoen kontrako auziak.

Gaur goizean bi gazte epaituko dituzte soldadutzari uko egiteagatik, Jesus Sopeña Segura eta Felix Vicente Alzuaz hain zuzen. Azkeneko honen aurka fiskalak bi urte eta lau hilabeteko kartzela zigorra eskatu du, Ordezko Zerbitzu Sozialari uko egiteagatik.

Bihar, berriz, hamar epaiketa izanen dira. Rafael Sanchez, Ivon Lucas Arza, Arturo Arrizabalaga, David Lopez Goñi, Juan Iturbide Telletxea, Antonio Etxetxi-

pia, Francisco Javier Morote Donazar, Carlos Amatria eta Ignacio Diazen aurka fiskalak hemezortzi hilabeteko zigorra eskatu du. Alfredo Allesen aurka, berriz, bi urte eta lau hilabeteko zigorra eskatu du, Ordezko Zerbitzu Sozialari uko egiteagatik.

BESTE BI EPAIKETA BARAKALDON

Etzi, ostegunean, beste zazpi intsumiso eseriko dira akusatuen aulkian. Jose Antonio Olaizola, Juan Maria Navarro, Carlos Ripa eta Jon Arkaitz Yaben gazteen aurka hemezortzi hilabeteko kartzela zigorra eskatu du fiskalak. Jose Andres Iribarren, Antonio Barrera eta Alfonso Beorlegiren aurka, berriz, bi urte eta lau hilabeteko zigorra, iaz intsumiso egin zirelako. Fernando Blanco eta Anskar Gomez intsumisoak epaituko di-

tuzte gaur eta etzi, ekainak 24, Barakaldoko bi zenbakiko Penaleko Epaitegian. Fiskalak hemezortzi hilabeteko kartzela zigorra eskatu du Barakaldoko bi intsumisoentzat.



ZIZURKILGO UDALA

IRAGARKIA

Udal Batzarreak 1993ko maiatzaren 31an ospatutako bileran onartuak aurrean baita, Zizurkilgo Lardamunio baserrian zaldi-hazkuntza instalaziorako Ordenamenduko Plan Berezia, MIKASUR S.L. bultzatua eta J.R. Lombara Jaun Arkitektoak idatzia, jendakurreko informazioa zabaltzen dira hilabeteko epean iragarki hau GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik kontatuta, epe horretan agiriak aztertuta eta egoki erizitako erreklamazioak eta alegazioak aurkez daitezkeelarik.

Zizurkil, 1993ko ekainak 10
ALKATEA

Kazetaritzako irakasle batzuk ez dira epaimahaikide izango

BILBO

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Informazio Zientzietako zenbait irakaslek uko egingo diote hurrengo egunetan epaimahai berezietako kide izateari. Irakasle kalera-tuen auzia dela eta, kalte-tuak izan diren ikasleen ekaineko lanak zuzentzeko Gobernu Batzordeak epaimahaikide izendatu zituen Kazetaritzako zenbait irakasle.

Kazetaritza Departamentuko iturriek atzo jakinarazi zuten zehar zenbait irakaslek uko egingo diote epaimahaiko partaide izateari. Departamentu honetako Kontseiluak, bestalde, hurrengo egunetan bildu eta neurri berriak proposatzeko asmoa du.

Aipaturiko iturriek ez zuten inolaz zehaztu epaimahaikide izateari uko egitea aho bateko erabakia izan den. Baina dirudienez, erabakia aho batekoa izango da, Kontseiluak bere azken bileran «legez kanpokotzat» jo baitzuen Unibertsitateko Gobernu Batzordearen erabakia eta epaimahaiak desegitea ere eskatu zuen.

Gizarte eta Informazio Zientzietako dekanoa den Santos Zunzunegiren hitzetan, bestalde, «Kazetaritzako irakasleek legez kanpokotzat jotzen badute Gobernu Batzordeak hartutako erabakia, inpugnatu egin beharko dute, hori baita erabakia aldatzeko bidea».



ZIZURKILGO UDALA

IRAGARKIA

Udal Batzarreak 1993ko maiatzaren 17an ospatutako bileran onartuak aurrean baita, Inaki Echeverria Izaguirre Jaun Arkitektoak idatzitako Zizurkilgo Planeamenduko Arau Subsidiarioak (B Motakakoak) Testu Birmoldatuen aldaketak, Gipuzkoako Foru Aldundi Txiki Gorenko Diputatu Kontseiluak 1991ko maiatzaren 28an hartutako akordioari egokituak, jendakurreko informazioa zabaltzen dira hilabeteko epean iragarki hau GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik kontatuta, epe horretan agiriak aztertuta eta egoki erizitako erreklamazioak eta alegazioak aurkez daitezkeelarik.

Zizurkil, 1993ko Ekainak 1.
ALKATEA